

ESKUBIDE OSOZI!

BIZITZA BURUJABEA



Euskal Herriko Karta Sozialak eraldaketa sozialaren 10 baldintzak bultzatuko ditu hurrengo asteetan, konfinamenduaren gainetik

Kanpaina gaur hasiko da, eta azken greba orokorraren ildotik jarraituko du: koronabirusetik irteeran, bizitzak kapitalismoa gailenduko du

Salbuespen egoeran dago Euskal Herria COVID-19 birusaren ondorioz, konfinamenduan. Osasun krisia, askotan aipatu dugun sistemaren krisiaren erdian eman da eta nola ez, krisi guztietan bezala, sistema kapitalista, heteropatriarkal natura suntsizaile eta arrazistaren kudeatzaileek langileen bizkarrera bota nahi izango dituzte egoeraren ondorioak.

Koronabirusak ez du krisia sortu, krisia lehenagotik zetorren, alarma egoeran hartu diren neurriek are eta ikusgarriago egin dute gehiengoaren kontra eta gutxiengo baten aldeko logikan oinarritzen den sistema honek ez duela funtzionatzen. Sistema kapitalista da bizitza eta kapitalaren arteko krisia areagotzen duena. Beraz, garaia da momentuko egoerari aurre egiteko neurriez gain, zaintzak eta bizitzak erdigunean jarriko dituen sistema berri bat eraikitzeko.

Erantzukizun eta ardura kolektiboak behar-beharrezkoak ditugu une hauetan eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta (EHESK) osatzen dugun sindikatu eta eragile sozialak prest gaude. Baina argi daukagu koronabirusak eta honi aurre egiteko neurriek sorturiko salbuespen egoerak sortutako beharrei erantzutearen azken erantzukizun politikoa Gobernuena dela.

Duela hiru hilabete eskas, milaka izan ginen Pentsio, Lan eta Bizitza duinaren alde Urtarrilaren 30ean Greba Orokorrean batu ginen langile eta herri sektoreak. Greba ofentsiboa zela esan genuen: murrizketa zehatzei erantzun baino, bizitza erdigunean jarri, prekarizazio prozesuari aurre egin eta aldaketa sozialerako burujabetzan urratsak emateko greba bezala kokatu genuen.

Gauzak horrela, egun Euskal Herrian koronabirusak sortutako testuingurua kezkaz bizi dugu. Kezkaz, lehenik langile eta oro har herritarron osasuna delako kolokan dagoena epe laburrean eta kezkaz, epe ertainean osasun krisiaren testuingurua baliatuz, elite ekonomiko eta politikoen eraso berri baten aurrean kokatu gaitzakeelako. Egungo eredu sozialak aldaketa sakonak behar ditu eta EHESK-tik horren aldeko bidea aldarrikatu eta egiteko prest agertzen gara.

Zentzu horretan, eraldaketa sozial sakon eta iraunkor baterako kanpaina abiatuko dugu, Euskal Herria konfinamendu egoeran egon arren. Zehazki, 10 dira zabalduko ditugun lehenasunezko aldarrikapen sozialak. Azken finean, koronabirusen krisialditik aterako gara, baina nola atera? Gure kanpainak ziurtatu nahi du ataka honetan bizitzak kapitalismoa gailenduko duela. Garaia dela momentuko egoerari aurre egiteko neurriez gain zaintzak eta bizitzak erdigunean jarriko dituen sistema berri bat eraikitzeko.

Langile eta oro har herritarron osasuna delako kolokan dagoena epe laburrean, baina epe ertainean osasun krisiaren testuingurua baliatuz, elite ekonomiko eta politikoen eraso berri baten aurrean kokatu gaitzakeelako. Ez gaude prest egungo testuingurua baliatuta logika neoliberallean sakonduko duten neurriak onartzeko eta zentzu honetan Instituzioak interpelatzen ditugu langile eta gehiengo sozialaren aldeko politika eta neurriak hartu ditzatela.

Gauzak horrela, gaur hasita eta datozen asteetan dinamika abiatuko dugu.

KORONABIRUSA ETA SISTEMAREN KRISIAREN AURREAN EHKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA BIZITZA DUINEN ALDE!

- 1) Zerbitzu publikoak garatu - osasun sistema publikoa indartu
- 2) Egoera prekarioenetan dauden kolektiboak babesteko neurri eraginkorrak
- 3) Oinarritzko eskubideak bermatzeko neurri zehatzak
- 4) Zaintza lanak aitortu eta bermatu
- 5) Indarkeria matxistari aurre egiteko premiazko neurriak
- 6) Lanpostueen defentsa
- 7) Informazio eskubidea bermatu
- 8) Krisiaren eragina ez dezagun langileok ordaindu
- 9) Lurraldetutako ekonomia sareak babesteko neurriak
- 10) Burujabetza bizitza sustengatzeko: eskubide eta askatasunen alde, autoritarismoaren aurka, eredu berria martxan jartzeko.

Bizitza duinaren alde, #ERALDAKETASOZIALA

ESKUBIDE OSOZI!

BIZITZA BURUJABEA



La Carta Social de Euskal Herria impulsa 10 reivindicaciones para la transformación social, superando el confinamiento

La campaña comienza hoy y continúa en la línea de la última huelga general: a la salida del coronavirus, la vida debe vencer al capitalismo

Euskal Herria se encuentra en situación de excepción por el virus COVID-19 y en pleno confinamiento. La crisis sanitaria llega en medio de la crisis del sistema que tantas veces hemos denunciado y, cómo no, como en todas las crisis, los gestores del sistema capitalista, heteropatriarcal, destructor de la naturaleza y racista tratarán de cargar las consecuencias a la clase trabajadora.

El coronavirus no ha creado la crisis, la crisis venía de antes, las medidas tomadas en estado de alarma han hecho más visible que este sistema, basado en la lógica de una minoría y en contra de la mayoría, no funciona. El sistema capitalista es el que agudiza la crisis entre la vida y el capital. Por lo tanto, es hora de construir un nuevo sistema que, además de hacer frente a la situación actual, ponga en el centro los cuidados y las vidas.

Las responsabilidades colectivas son imprescindibles en estos momentos y los sindicatos y agentes sociales que conformamos la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria (EHESK) estamos preparados. Pero tenemos claro que la responsabilidad política última de responder a las necesidades del estado de excepción generado por el coronavirus y las medidas para combatirlo es de los Gobiernos.

Hace apenas tres meses fuimos los sectores obreros y populares los que nos unimos a la huelga general el 30 de enero a favor de pensiones, trabajo y vida dignas. Dijimos que la huelga era ofensiva: más que responder a recortes concretos, la situamos como una huelga para poner la vida en el centro, hacer frente al proceso de precarización y dar pasos en la soberanía para el cambio social.

En la actualidad vivimos con preocupación la evolución del coronavirus en Euskal Herria. Con preocupación, primero porque es la salud de la clase trabajadora y de la ciudadanía en general la que se tambalea a corto plazo, y con preocupación, porque aprovechando el contexto de crisis sanitaria a medio plazo, podemos sufrir un nuevo ataque de las élites económicas y políticas. El modelo social necesita cambios profundos y desde la Carta vamos a trabajar para ello.

Por eso, la Carta arranca una campaña para una transformación social profunda y duradera, a pesar de que Euskal Herria se encuentra en una situación de confinamiento. En concreto, vamos a impulsar 10 reivindicaciones sociales prioritarias. Al fin y al cabo, saldremos de la crisis del Coronavirus, pero ¿cómo? Nuestra campaña quiere asegurarse de que la vida ganará al capitalismo. Es hora de construir un nuevo sistema que ponga en el centro los cuidados y las vidas.

Porque la salud de la clase trabajadora y de la ciudadanía en general es la que está en peligro a corto plazo, pero a medio plazo, aprovechando el contexto de crisis sanitaria, puede situarnos ante un nuevo ataque de las élites económicas y políticas. No vamos a aceptar medidas que profundicen en la lógica neoliberal e interpelamos a las instituciones para que adopten políticas y medidas a favor de los trabajadores y de la mayoría social.

Así las cosas, arrancamos una campaña que se desarrollará durante las próximas semanas.

FRENTE A LA CRISIS DEL SISTEMA Y EL CORONAVIRUS ¡LA CARTA DE LOS DERECHOS SOCIALES DE EH, POR UNA VIDA DIGNA!!

- 1) Desarrollar servicios públicos - reforzar el sistema sanitario público
- 2) Medidas eficaces para la protección de los colectivos más precarios
- 3) Medidas concretas para garantizar los derechos fundamentales
- 4) Reconocer y garantizar las labores de cuidados
- 5) Medidas urgentes para combatir la violencia machista
- 6) Defensa del empleo
- 7) Garantizar el derecho a la información
- 8) Que el impacto de la crisis no lo paguemos las y los trabajadores
- 9) Medidas de protección de las redes económicas territorializadas
- 10) Soberanía para sostener la vida: por los derechos y libertades, contra el autoritarismo, para poner en marcha un nuevo modelo.

Bizitza duinaren alde, #ERALDAKETASOZIALA